

ro berri dugu, hainbat herritan inauteriak ospatzen hasi dira dagoeneko, eta beste zenbait lekutan ate joka dira jada. Horiek, ordea, ez dira Euskal Herrian ospatzen diren jai bakarrak; zerrenda luzea da: Kandelario, San Blas, Santa Ageda, San Nikolas... Noiz eta zergatik ospatzen diren jakin nahian, jaien jatorriaren bila ibili gara.

www.urdaibai.org/eu/etnografia/ohiturak.asp helbidean, esaterako, Santa Ageda, inauteriak, Gabonak, sanjoanak eta beste hainbat festa dituzte mintzagai. Nola ospatzen diren aipatzeaz gain, ospakizun bakoitzaren abestiak edo koplak jasotzen dira atarian.

Emeterio Sorazu www.euskonews.com/0020zbk/gaia2002eu.html artikuluan ere nekazari munduko ospakizunez mintzo da. Festen artean, besteak beste, inauteriak, San Blas eta Santa Ageda egunak aipatzen ditu testuan.

Otsailaren 3an San Blas eguna ospatuko da: www.zerain.com/parkea/eus/ohiturak.asp orrialdean kontatzen denez, eztarrian trabatuta arrain hezur bat atera zion behin mutil koxkor bati, eta, harrezkerro, eztarriko minaren zaindari bihurtu da San Blas martiria.



http://web.bizkaia.net/Bizkaia_Informazioa/euskara/Informazio_orokorra/Kultura/e2fietra.htm ere San Blas jaiaz mintzo dira, baina baita neguan, udan eta udaberrian egiten diren beste hainbat jaien inguruan ere. Otsailaren 5ean ospatzen den Santa Ageda egunaz, esaterako, www.euskalnet.net/muskiz/pag12.htm atarian Ageda Deuna

Siziliako emakume bat zela gogoratzen dute. Siziliako agintariak neska lortu ezin zuela-eta, oinaze izugarriak sufriarazi zizkion; ezagunena bi bularrak moztea. Hala, haurtxoen eta bularretako gaixotasunen bat duten emakumeen babeslea da Santa Ageda.

Egun horretan jendea baserrita-

na eskolako haurrak ere urtero ateratzen dira eskean. Hala diote, bederen, www.txikipress.net/4-ale/Lehena/Aizarna/SANTAESKEA%201.htm helbideko erreportaiari.

Gipuzkoan ez ezik, Bizkaian ere Santa Ageda edo Agate Deunaren eguna ospatzeko ohitura dute. Nola, baina? Juan Manuel Etxeberriak azaltzen du bere artikuluan: www.euskonews.com/0019zbk/gaia1905eu.html.

Eskean aritzeko eguna izaten da. Zergatik jantzen dugu, baina, baserritar jantzia? www.euskonews.com/0313zbk/gaia31301eu.html artikuluan argitzen da ohitura horren historia.

Eta zein kanta abesten dira? <http://es.geocities.com/emitologia/kantuak.htm> edo www.euskaraz.net/Kultura/Kantutegia/SantaAgeda helbideetan eskura ditzakezu, esaterako, eskean abesten diren koplak.

Ezin dugu artikulua amaitu inauterien aipamenik egin gabe. <http://abarka.free.fr/carnavals/carnavals.htm>, www.dantzan.com/Edukiak/Ihauteri-fer-rojo edo www.euskonews.com/0020zbk/elkar2001es.html helbideetan duzu inauterien gaineko informazio interesgarria.